

Auzitegi Gorenak gogortu egin ditu koltza dela eta akusatutakoen zigorrak

Kalean zeuden bederatzi lagunek gartzelara itzuli beharko dute

Kutsatutako koltza olioa banatu zuten pertsonak urte gehiago igaro beharko dituzte gartzelan, atzo Auzitegi Gorenak aurretik Entzutegi Nazionalak ezarritako zigorrak gogortu ondoren. Kutsatutako koltza olio hartzeagatik 300 lagun baino gehiago hil zen iturri ofizialen arabera eta 25.000 kaltetu izan ziren.

MADRIL

Entzutegi Nazionalak ez bezala, akusatutakoek «pertsona askoren heriotza eragin zuen osasun publikoaren aurkako delitua» egin zutela iritzi dio Auzitegi Gorenak eta hori dela medio gogortu egin dizkie hasieran ezarritako zigorrak. 1988. urtean kaleratutako epaian ordea, Auzitegi Gorenak «arduragabekeria» besterik ez zien egotzi akusatuei eta auziperatutako 38 lagunetatik, 25 aske utzi zituen.

Gaur egun gartzelan zirauen bakarrari, industriarako erabili behar zen olio Madrilen banatu zuen Juan Manuel Bengoetxea enpresari donostiarrari, 77 urteko gartzela zigorra ezarri dio Auzitegi Gorenak, aurretik 20 urteko zigorra soilik zuenean. Olio manipulatu eta saltzaile txikien artean banatu zuen Ramon Ferrero madrildarrak 67 urteko zigorra bete beharko du (aurretik hamabi zituen). Gaur egun Ferrero ka-



Hirurehun lagunetik gora hil ziren anilinaz kutsatutako koltza olio hartzeagatik.

lean zegoen bere zigorraren zati handia bete ondoren. Egoera berdinean zeuden beste hamaika lagunak gartzelara itzuli dira jadanik edo datozen ordutan bueltatuko dira.

Enric Salomok (lau urteko gartzela zigorra jaso zuena) 38 bete beharko ditu orain, Ramon Alabartek (lau) berrogei, Jorge Pichek (hamar) hamabi, Elias Ferrero eta Candido Hernandezek (lau) hamar eta Agustin eta

Tomas Baviera anaiek (lau hila-bete) lau urte. Azken horiek aske gera daitezke, epaiketa aurretik lau urte egon bait ziren gartzelan.

Auzitegi Gorenak atzera bota zuen Juan Manuel Bengoetxearen abokatuak argudiatutako ezjakintasuna, epaiaren arabera «auzipetuak bazekielako koltza olioak behar baino anilina gehiago zuela eta jendeak kontsumitu behar zuela. Anilina pozointzua dela jakin arren, Bengoetxeak

olioa banatu egin zuen aberasteko asmoz». Pozointzaren arrazoiak koltza olioak zuen anilina izan zela guztiz frogatuta dagoela dio Auzitegi Gorenak.

Kaltetuen kopurua ere handitu egin zuen Auzitegi Gorenak, aurreko epaian «zalantzako gaitxoak» zirenak sartu bait ditu. Kalteordainak berdin utzi ditu Gorenak, nahiz eta zigortutakoekin ezin izango dituzten ordaindu hainbeste dirurik ez dutelako.

Estatuko edozein hizkuntzatan idatzi den agiria onartu beharko da

MADRIL

Estatuko Administrazioak gaztelera ez diren gainontzeko hizkuntza ofizialetan idatzitako agiriak onartu egin beharko ditu, atzo Gobernuak Francesc Ferrer PSCKo senadore independenteak egindako galderari erantzunez esan zen eraneran. Administrazioari igorritako agirietan itzulpenik egin beharko balitz, gastu guztiak Estatuaren esku egongo direla ziurtatu du Gobernuak. Exekutiboak beregain hartu du zenbait kasutan Estatuko Administrazioak euskaraz, katalanez edo galegoz idatzitako agiriak atzera botatzearan errua, baina aurreantzean horrelako kasurik gertatuko ez dela esan du.

Francesc Ferrer senadoreak salatu zuenez, Justizia eta Defentsa ministeritzek eta Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak atzera bota izan dituzte gaztelera ez beste hizkuntzetan bidali zaizkien agiriak eta gaztelera itzultzeko eskatu. Gobernuaren erantzunarekin, Ferrer pozik agertu zen «hizkuntz normalkuntzan urrats handia eman delako» eta guztiak Administrazioarekin harremanak beren hizkuntzan izateko eskubidea gogoratu zuen.

Preso abertzale bati Kortsikarat sartzea debekatu dio FLNC 'ofizialak'

A. S. / BAIONA

A Cuncolta Naziunalar Kortsikako mugimendu abertzaleak, FLNC 'ofizialak' Jean Michel Rossi duela bi aste epaitutako militanteari egindako mehatxuak gogor salatu ditu. Izan ere, duela hamar egun banatutako agiri batean, FLNCKo adar honek adierazi zuen, «Rossiri betirako debekatzen diogu Kortsikarat sartzea».

FLNC, Kortsikaren askapenerako frontearen zatitzetik 'ofiziala' gisa azaltzen den adar honetaz, A Cuncoltako kidea den Jean Michel Rossik honako hau eman zuen aditzera duela bi aste Pariseko epaitegian izandako bere auzian: «Kanaleko ofizialeko militanteak Frantziako Estatuak manipulatu ditu eta Mafiaren antzeko bide batean sartuak daude. Historiak epaituko du beren jokabidea». Hitz horiei oihartzun eman zioten joan zen

apirilaren 22an FLNC 'ofizialak' banatutako agiri batek eta honetan azaldua zen, besteak beste: «Jean Michel Rossiri, Kortsikarat behin-betirako sartzea debekatzeko erabakia hartu dugu». Agiri honetan gaineratua zenez, «ez gara inoiz mendekuz jokatu, kortsikar populua eta bere borrokaren interesak lehen lerroan jarri bait ditugu beti. Alabaina, orain aski da eta ez dugu gehiago onartuko irainduak izaita». Orain arte 'La Corse' egunkariak bakarrik jasotako idatzi honetan FLNC 'ofizialak' azpimarratzen zuen azken batez: «Beste abisurik ez da izango; hamabost urte hauetan gutaz berri dakitenak jakinean daude bihozgogorrak izaiten ahal garelá, egoerak honela aginduz gero».

A CUNCOLTA-K Kortsikako «**FAXISTAK**» iritzi publikoa **SALATU** ezustean harapatu duen agiri honi erantzun

emateko, A Cuncolta Naziunalar alderdi abertzaleak eritzi zion «heriotz kondena hori egin dutenen izaera faxista agerian geratu da». FLNC 'adar historikoa' erakundea sustatzen duen alderdi honen agiriak gehitzen zenez, «mozorroak erori dira. Beren zinezko irudia agertuz erakusterat eman dute egiazko etsaiak dauzkatela kortsikar abertzaletasuna eta gure borroka iraultzailetik datorren itxaropena». Azken hauteskundeetan FLNC 'ofizialek' hurbil dagoen MPA alderdiari erreferentzia argia eginez, A Cuncoltak gaineratu zuen: «Iritzi publikoa ohar daiteke hauteskundearen aurretikako jarrera irekien eta liberalismo berrizale hauen zinezko izaera faxistaren artean sekulako tartea dagoela». A Cuncoltako kide guztiak Rossirekin bat etortzen direla azpimarratuta, agiri honek azaltzen zuen baita ere, «hone-lako joerak ez balira erabat baz-



Kortsikako abertzaleen arteko aspaldiko borroka berpiztu egin dira.

turtuak zein litzateke gure hurren etorkizuna beren lur honetan? Antzeko jokabideak kortsikar popularen ohituretatik at daude eta zihur gara gaitzetsiko dituela».

Gogorara daitekeenez, J.M. Rossi eta J.D. Allegrini Pariseko epaitegi korrekzionalean epaitu zituzten apirilaren 15 eta 16an, ustez FLNC 'historikoa' erakunde armatuko kide izatearen

salaketapean. Bi lagun hauei leporatzen zioten Balagna eskualdeko alkateei FLNC izenpetutako gutun bat igortzea, zeinean turismo espekulazioari oztopo egitea eskatzen zen. Prokuradoreak bost eta hiru urteko espetxe zigorra eskatu zuen Rossi eta Allegriniren aurka. Epaitegiaren erabakia datorren maiatzaren hogeitabatean emango da eza-gutzerat.